

Uraren Mundu Eguneko ekitaldiak



Uraren Mundu Egunearen ospakizuna dela eta, **joan den martxoaren 22an AMVISAK 'Oso ondo' errekonozimenduak banatu zizkien Futura Planaren diagnostiko programan parte hartu duten 11 instalazio berriri**, zeinak, azken bi urteetan, nabarmendu egin diren Vitoria-Gasteizen uraren kudeaketan eta erabile-
ran jardunbide egokien adibide izateagatik.

Sariak AMVISAKo lehendakari Jaione Aguirrek banatu ditu, eta oraingoan sarituak izan dira Arkupeak udalaren adinekoen egoitza, Erdi Aroko hiriguneko udalaren enpresa mintegia, Salburuko

gizarte etxea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren Lakuako adinekoen egoitza, Fraternidad-Mupresparen Arabako probintzia zuzendaritza, Correosek Jundizen duen tratamendu automatizaturako zentroa, Salburuako osasun zentroa, Lakuako osasun zentroa, Lakuabizkarreko osasun zentroa, Gasteizko Ertzaintzaren polizi etxea eta Ertzaintzaren Arkautiko Trafiko basea.

Programa 2005ean martxan jarri zenetik, 178 diagnostiko egin dira sektore eta ezaugarri mota guztietako instalazioetan. Errekonozimendu eta emandako diplomekin, orotara 93 jardunbide egoki identifikatu eta aintzatetsi dira hirian.

Horrez gain, Egibide Jesus Obrero ikastetxeko DBHko 2. mailako 120 ikaslek hainbat tailerretan parte hartu zuten, **substantzien erabilerearen eta azalazten ari den kutsaduraren gaineko eguneroko ohiturez kontzientziazteko**. Tailerrak martxoaren 23an eman ziren, ingurune urtarrean azalazten ari diren kutsatzaileen presentziari eta horri lotutako arazoei buruzko proiektuaren barruan, Euskadiko Uraren Erakunde Publikoen Sarearen ekimenez, zeinean AMVISAK ere parte hartzen duen.

Tailerren helburua da parte hartzen duten neska-mutilek hausnarketa egitea egunero erabiltzen dituzten produktu kimikoen inguruan, eta horrek nola eragiten duen ingurune naturalean metatzen diren substantzia kutsatzaileak sortzea. Halaber, xedea da kutsatzaile horiek nola sortzen diren ezagutzea, eta etxean bertan uretara bota eta gero nolako ondorioak eragiten dituzten.

Zein da munduan edateko ura eskuratzeko aukeraren egoera? Zenbat pertsonak ez dute komunik etxean? Zenbat pertsonak edan lezakete alferrik botatzen dugun ura? Galdera horien eta beste batzuen erantzunek osatzen dute **"Kontrasteak deZifratzen" erakusketaren** edukia, zeinean, zifren bitartez, gure errealitatea eta planetako beste leku batzuetakoa konparatzen den, helburua izanik hausnarketa egin dezagun oraindik bideratu gabe ditugun erronei buruz, uraren eta saneamenduaren eskubidea bermatzeko eta unibertsalizatzeke. Gizarte etxe hauetan ikusi ahal izango da, hurrenkera honetan: Lakua, Aldabe, Judimendi, Salburua, Ibaiondo, Hegoalde, Iparralde eta Zabal-gana, maiatzetik abendura bitartean, zentro bakoitzean gutxi gorabehera hilabete bat egongo delarik.

Erakusketa gizarte etxeetan



Zein da munduan edateko ura eskuratzeko aukeraren egoera? Zenbat pertsonak ez dute komunik etxean? Zenbat pertsonak edan lezakete alferrik botatzen dugun ura? Galdera horien eta beste batzuen erantzunek osatzen dute **"Kontrasteak deZifratzen" erakusketaren** edukia, zeinean, zifren bitartez, gure errealitatea eta planetako beste leku batzuetakoa konparatzen den, helburua izanik hausnarketa egin dezagun oraindik bideratu gabe ditugun erronei buruz, uraren eta saneamenduaren eskubidea bermatzeko eta unibertsalizatzeke. Gizarte etxe hauetan ikusi ahal izango da, hurrenkera honetan: Lakua, Aldabe, Judimendi, Salburua, Ibaiondo, Hegoalde, Iparralde eta Zabal-gana, maiatzetik abendura bitartean, zentro bakoitzean gutxi gorabehera hilabete bat egongo delarik.

AMVISAREN bulego birtual berrian sartu daiteke dagoeneko

AMVISAREN webguneak bulego birtual berrirako sarbide du dagoeneko, **AMVISA On Line**, non zerbitzuaren ohiko tramiteak egin daitezkeen, jendearentzako arreta bulegoetara joan beharrik gabe. Plataformaren bitartez kontratuen alta edo baja egin daiteke, helbideratzeak eta harremanetarako eta korrespondentziarako datuak aldatu, kontsumoak eta fakturak kontsultatu, etab., eta horretarako erabiltzaile moduan alta eman besterik ez da egin behar, NAN elektronikoa edo Herritarren Udal Txartela edukiz.

denonURA

DENON URA, hori da AMVISAK zabaldu nahi duen mezu korporatiboa, hiriko urari eta bertako jarduerari oro har lotuta; dagoeneko hainbat komunikazio elementutan eta egitasmotan sartzen hasi da, baita fakturan eta enpresaren ibilgailuetan ere.

Mezuarekin nabarmendu nahi da ura Vitoria-Gasteizko herritar guztien ondarea dela eta, horregatik, erantzukizuna partekatzen dugula kudeaketari eta kontsumoari dagokionez. Aldi berean, iturriko uraren kalitatea aitortzeko mezu bat ere zabaldu nahi da, baita egunero disfrutatzen ditugun hornikuntza eta saneamendu zerbitzuaren balioa agerian jartzeko ere.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org